Elikadura-burujabetzaren eraikuntza kolektiborako ekintza sindikala

Bizi lur
Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Erakundea
Asociación para la Cooperación y el Desarrollo de los Pueblos

etxalde
nekazaritza iraunkorra

BIZKAIA
ehne
euskal herriko nekazarien elkartasuna

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

Lan hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babes ekonomikoarekin egin da, *Soberanía Alimentaria: una alternativa real frente a la crisis y una herramienta para la transformación social* (PRO-2012k3/0021) izeneko proiektuaren barruan.

Egileak Bizilur, EHNE-Bizkaia eta ETXALDE-Nekazaritza Iraunkorra.
2015eko urria

Koordinatzailea Maitane Cabeza

Itzulpena Di-Da

Diseinua Artefakto

Ilustrazioak Rini Templeton

Dokumentu honetan jasotako gogoetak honako erakunde sindikalekin batera egindako lanaren emaitza dira

LAB langile abertzaleen batzordeak
ELA EUSKAL SINDIKATUA
CCOO euskadiko langile komisioak
Esk
steilas
LKN CGT

Nor gara?

Bizilur-Lankidetzarako eta Herrien garapenerako erakundea, herriek eta pertsonek pairatzen ditugun pobreziaren, desberdintasun globalen, mendekotasunen eta zapalkuntzen arrazoiak bizi dugun menderatze-sistema anitzean (neoliberala, inperialista eta heteropatriarkala) daudela uste dugun pertsonek osatzen dugu. Diagnostiko horretan oinarrituta, gure helburua da sistema horri aurre egitea gizarte-mugimendu askatzaileen bitartez, gure ustez, beste bizimodu-eredu batzuk proposatzeko gaitasuna eta legitimitatea dutelako.

EHNE-Bizkaia: EHNE-Bizkaia (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna) nekazarien sindikatua da, eta Elikadura Burujabetza Euskal Herrian susteatzea du xede nagusi. Horretarako, hainbat arlo eta lan-eremu ditu; besteak beste, aholkularitza, formazioa, sektorean instalatzeko prozesuetan laguntzea eta Nekasarea kontsumo-taldeak sustatzea. La Via Campesina-ko kide da.

ETXALDE Nekazaritza Iraunkorra mugimendua baserritarrek osatzen dute, eta nekazaritzari loturiko pertsonentzat zabalik dago. Xede nagusia nekazaritza-jardueraren bidez Elikadura Burujabetza Euskal Herrian inplementatzea du. Elikadura Burujabetza garatzeko mugimendu sozial eta sindikalekin aliantza estrategikoak sustatu nahi ditu, bai tokian bertan bai nazioartean.

Sarrera

Dokumentu hau Bizilur, Ehne-Bizkaia eta Etxalderen arteko lanaren emaitza da, eta ekintza sindikaletik abiatuta, elikadura-burujabetza indartzeko gakoak eskaintzea du helburu.

Errealitateak hurbiltzeko lehenengo saioa da, une batzuetan bestelako norabidean joan daitekeen arren, paradigma aldaketa baten aldeko borrokan bat egin duten errealitateak alegia: nekazarien sindikalismoa eta klaseko langile-sindikalismoa. Dokumentu honek, beraz, Euskal Herriko langileen mugimenduaren baitan, eta nekazarien mugimenduarekin batera, gogoeta-prozesua eta ekintza politikoa sustatzeko "hazia" izan nahi du.

Nekazarien mugimenduaren iritziz, elikadura-burujabetza –gailentzen den ereduaren ordezko aukera gisa–, erraz doitzen da gizartearen eremu guzti guztietan, bai landa-eremuan bai hiri-eremuan. Tokikoa lehenesten du globalaren aurrean eta, logika xume horretatik abiatuta, pertsonen, herrien, kulturen eta ekosistemen aurkako zapalkuntzan oinarrituta iraun nahi duen egungo sistemaren oinarri guztiak zapuzten ditu.

Hori kontuan hartuta, gure iritziz, lantokietatik, fabriketatik, enpresetatik edo gure eremu pribatutik, elikadura-burujabetzaren aldeko borroka gizarte justuagoaren aldeko borroka ere bada, langile-klasearen eta ugazaberiaren arteko harreman justuagoak izango dituena; enpresek dauden eskualdeetan zuzenean, konpromisoarekin eta modu positiboan eragin dezaten, sistema publiko sendo baten aldeko borroka ere bai; gure osasunaren alde eta ekosistemen eta baliabide naturalen errespetuaren aldeko borroka ere bada.

Gogoeta horretan oinarrituta, nekazarien mugimendutik, Bizilur elkartearekin lankidetzan, formaziorako, gogoetarako eta eztabaidarako hainbat espazio sustatu ditugu 2015ean, gure herriko gehiengo sindikala osatzen duten klaseko sindikatuekin, elikadura-burujabetzaren printzipioak eta errebindikazioak ekintza sindikalera hurbiltzeko.

Egindako topaketetan sortutako gogoetak eta proposamenak jaso ditugu orrialde hauetan. Elikadura-burujabetza eta Ekintza sindikala gai hartuta Euskal Herrian egin diren 9 formazio-saioetan 6 zentral sindikalek hartu dute parte.

Langile Abertzaleen Batzordeak -LAB
Eusko Langileen Alkartasuna/Solidaridad de los Trabajadores Vascos-ELA
Euskadiko Irakaskuntzaren Langileen Sindikatua/Sindicato de Trabajadores/as de Enseñanza STEE-EILAS
Comisiones Obreras de Euskadi-CCOO-Euskadi
Lanaren Konfederakunde Nagusia/Confederación General del Trabajo-LKN-CGT
Ezker Sindikalaren Konbergentzia/Convergencia de Izquierda Sindical-ESK

Dokumentu hau tresna gisa proposatzen dugu, nekazarien proposamenekin aliantzan, klaseko sindikalismoa eraikitzen eta Euskal Herrirako elikadura-burujabetza erreala pizten jarraitzeko. Dokumentu honetan islatzen diren eztabaidak eta proposamenak eraikuntza eta ekintza kolektiboko prozesuari ekiteko oinarria izatea nahi dugu.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu prozesu honetan parte hartu duten pertsona eta erakunde sindikal guztiei; dokumentuan jaso diren ideien eta proposamenen sorburu direlako. Zuen ekimen eta ilusioarekin erakutsi duzue sistema aldatzea egingarria dela, eta jokaleku berri horietan guztiontzako lekua dagoela.

Zer borrokatu nahi dugu: Eredu agroindustriala

Elikadura, beharrezkoa, berebizikoa eta eskubide unibertsala izanik ere, borroka-eremu bihurtu dute. Nekazaritza sektore estrategikoa da edozein herrialderentzat; herritarrentzako elikagaien ekoizpenaren eta hornikuntzaren jatorri izateaz gain, zeregin garrantzitsua duelako lurraldearen, biodibertsitatearen eta ingurumenaren kudeaketan eta lurraldeari loturiko identitate eta kulturei dagozkien gaietan.

Nekazaritza-politikek espekulazioan, interes pribatuan eta korporazio handien negozioan oinarrituriko agroelikadura eredua sustatzen dute. Negozio kapitalista neoliberalaren ideologian oinarrituta sortzen dira elikaduraren euskarri behar luketen politika horiek guztiak: nekazaritzako, arrantzako eta abeltzaintzako elikagaien ekoizpen eta eraldaketa eredu intentsiboak, produktibistak eta industrialak; protagonista nagusi azalera handiak eta enpresa handiak dituen merkaturatzeko modua; lana gizonen eta emakumeen, iparraren eta hegoaren artean banatuta desberdintasunak areagotzen dituzten legeak, elikaduraren sektorerako berebizikoak diren ondasunak eta baliabideak (ura, lurra, haziak, ezagupenak) pribatizatzen dituzten eta elikagaien produkziora beharrean finantza-kapitalaren produkziora bideratzen diren politikak.

Horretarako, elikagaiak ekoizteko eta banatzeko kate handiak sortu dira nazioz gaindiko enpresen eskuetan. Ekoizpen intentsiboa eta labore bakarra bultzatu dira, eta ondorioz, enpresa horiek lurra metatzea etorri da; ekoizpena intentsifikatzeak lurraren teknifikazio hazkorra eragin du, energia eta kanpoko sargai gehiago erabiltzea (hazi patentatuak, ongarri eta plagizida kimikoak, gizartearentzat eta ingurumenerako kaltegarriak diren ureztatze-sistemak). Elikagai petromendekoak deiturikoen produkzioa sustatu da; baliabideak irensten dituen produkzio-eredua sustatzeaz gain, askoz hondakin gehiago eragiten dituena, eta beraz, klima-aldaketan eragiten duena. Era berean, genetikoki aldara-

zitako organismoak sartu dira, eta besteak beste, bertako hazi asko desagertzea ekarri du horrek, eta gainera, oraindik ez dakigu zer nolako eragina izango duen horrek osasunean. Hori guztia kontsumitzaileen eta ekoizleen bizkar egin da, egunero kontsumitzen ditugun elikagaien ekoizpenari eta eraginari buruzko erabakiak hartzeko gaitasun osoa galdu baitugu.

Egoera horrek eragozpen handiak sortzen dizkie planeta osoko nekazariei, landa-eremuetako biztanleen eta milioika nekazariren bizitzeko eta lan egiteko baldintzak kaltetzen ditu eta baserriko nekazaritza eta ustiategi txiki eta ertainak desagertzea eragiten du.

FAO moduko erakundeen arabera, 2009. urtean munduan gose edo malnutrizio egoeran zeuden biztanleen kopurua milioi bat lagunekoa zen, eta 2015erako aurreikuspenak guztiz dramatikoak ziren, elikagaien eta erregaien prezioaren garestitze espekulatiboen eraginez.

Hegoaldeko herrialdeetako landa-eremuetako biztanleak dira gehienetan ondorio horiek zuzenean pairatzen dituztenak, hain zuzen, elikagaien gainprodukzioa (ehuneko handi batean zalantzako kalitatekoa) ezaugarri duen historiako une honetan, haien helmuga Iparraldeko herrialdeetako biztanleen sukaldeetaraino bidaiatzea delarik. “Ipar Globala”, kontsumitzen dituen elikagaien % 5 soilik ekoizten duena.

Egoera horretan, indarrean dagoen elikagai-eredu globalizatu horrek ez die berdin eragiten gizonei eta emakumeei, ezarrita dagoen genero-sistemaren eta instantzia guztietan nekazaritza-politikak taxutzean ematen zaien kutsu patriarkalaren ondorioz. Hori dela eta, emakumeak nekazaritzari dagozkien politiketatik kanpo geratzen jarraitzen dute, eta txarragoa dena, politika horiek eraldatzeko xedea duten errebindikazioetatik baztertu izan dituzte askotan. Jakina, sistema juridiko eta legegilea ez da sektore horretako emakumeen ekarpenak eta ezagupenak inbisibilizatzeko bide bakarra; izan ere, hainbat jardunbide daude nekazaritzan egin duten eta egiten duten lana gutxiesten dutenak.

Era berean, Europako nekazaritzak norako berari jarraitu dio: Coordinadora Campesina Europea (CPE) izenekoak adierazi du, minutuero nekazaritzako ustiategi bat desagertzen dela Europan. Egoera horretan, Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) gorago aipatu ditugun agindu neoliberalei jarraitu die, eta Europako nekazaritza-sektorean ekoizpen-eredu agroindustriala ezarri dute. Lur-metaketa, biodibertsitate galera, belaunaldi-txandarik ez duen sektorearen zahartzea, emakumeek lurren jabe izateko eta laneko eskubideak erabiltzeko dituzten eragozpenak Europako nekazaritzaren irudiaren ezaugarri izan dira, eta landa-eremu asko utziak izatea eta hirietarako migrazioa eragin ditu.

Euskal Herrian egoera ez da oso bestelakoa izan: Tokiko ekonomia tradizionalak desagertzen joan dira, eta haiekin batera, gure herriko zenbait balore kultural eta sare sozial. Euskal landa-eremuaren desagerpenaren zati bat industrializazioarekin lotuta dago, ba-

serriko bizimodua etorkizunerako desiragarri ez izatea eragin baitzuen. Hortaz, landa-eremuaren eta hiri-eremuaren arteko bereizketak lurrarekin eta ekoizpenarekin eta elikagaiak modu jasangarrian ekoiztearekin loturiko ezagupen eta baloreak galtzea ekarri du, eta ondorioz, landa-eremuetako lanpostu asko galtzea ere bai. Landa-eremutik hirirako exodo horretatik aurrera, nekazaritzako ustiategiak nabarmen gutxitu dira. Testuinguru berrira egokitzeko eta bizirauteko gelditu zirenek Europako Nekazaritza Politikak zehaztutako ildoari jarraitu zioten.

Hortaz, oro har, sektore zaharkitua daukagu, belaunaldi-txandarik izan ez duena eta, hein batean, gehiago ekoizteko ahaleginak zorpetu duena. Tokiko, barneko eta zuzeneko merkatua galtzea izan da nekazaritzako elikagaien sektorean gailendu den beste ezaugarri bat, ekoizpena esportaziora bideratuta baitzegoen. Esportaziora orientatzeak asko zehaztu ditu ekoizpenerako jarraibideak: ustiategi intentsibo eta dibertsifikazio txikikoak, erositako haziak erabiltzea (tokiko barietate asko galduta), elikagaien prezio oso baxuak, kanpoko sargaiekiko mendekotasun handia (ekoizpeneko kostuak handitzea), energia kontsumo handia eta CO2ren ekoizpen hazkorra, hondakinen kudeaketa eskasarekin batera. Egia da, ordea, lurraldearen arabera, munduko beste leku batzuetan baino nekazaritzako ekoizpen ugariagoak ikus daitezkeela, ezin diogu muzin egin nekazaritza-politiken jite neoliberalari.

Elikagaien ekoizpen jasangarriaren kontrako egoera baten aurrean gauden arren, tokiko nekazaritza txikiak eutsi egiten diola eta mundu mailan gailendu egiten dela ikusten dugu:

Munduko biztanleen % 60k, gaur egun, nekazari izaten jarraitzen du (nekazari, arrantzale, artzain...) eta gainera, nekazarien % 70 emakumeak dira. Tokiko nekazaritza txikia baita oraindik orain mundu mailan kontsumitzen diren elikagaien % 70 ekoizten duena, hau da, emakume nekazari txikiak dira planeta elikatzen jarraitzen dutenak.

Nekazarien jakintzak lurrarekiko harremana haren mugekiko errespetutik ulertzen du, eta haren biodibertsitatean lagunduta, haren parte delako, menderatu eta ustiatu gabe. Eta horri esker iritsi da gaur eguneraino, ondasun unibertsalak ezin direla pribatizatu "balioa" eta "prezioa" ez direla gauza bera erakusteko.

Elikadura-burujabetzaren paradigma munduko milioika pertsona eta kolektibo egituratzen eta elkar konektatzen ari den proposamenetako bat da. Egituraketa hori beharrezkoa eta oinarrizkoa da, elikadura-sistemak lege eta politiketako aldaketak ez ezik errotiko balore-aldaketa behar baitu: bizitza erdigunean kokatzea, alegia. Hortik aurrera, Andeetako herrietako arbasoen ondare den Ondo Bizitzearen kontzeptua berraztertu da, eta lurralde bakoitzean bertako gakoen arabera aztertzen ari dira. Bizitza erdigunean kokatze horretan –hau da, bizitza zentzu zabalean, gizakiena eta gainerako izaki bizidu-

nena eta planetarena– aurkitu ditu elikadura-burujabetzak bestelako paradigma batzuk: ekofeminismoa, ekologia politikoa, desazkundea edo ondo bizitzea, besteak beste.

Euskal Herrian, nekazarien sektoreak zenbait sindikaturekin batera –EHNE-Bizkaia Hego Euskal Herrian eta Euskal Herriko Laborantza Ganbaran (EHLG) Iparraldean, besteak beste–, urte asko daramatza gure alternatiba tokikotik hasita eraikitzen, hainbat kolektibo elikadura-burujabetzak dakarren eredu-aldaketara biltzen. Proposamen hori aurrerapen gisa ulertu behar dela ulertuta, urte asko dira aldaketarekin konprometiturik dagoen nekazarien sektore horren, gizarte zibileko beste erakunde batzuen eta herritarren arteko elkarrizketa sustatzen, eta aldi berean, nazioartean bestelako mugimendu batzuk egituratzeko ahalegina egiten da.

Proposatzen duguna: Elikadura-burujabetza, herrietatik eta herrientzat

Elikadura-burujabetza sistema neoliberalaren aurreko erantzuna da, Vía Campesinaren baitan 1996an sortu zena. 20 urte hauetan, proposamenaren garapena harrigarria izan da, munduko hainbat tokitako jende askoren interes eta beharrizanekin konektatu duelako, eta ez bakarrik nekazarien artean, gaur egun gizarte-mugimendu, GGKE, unibertsitate eta erakunde publiko askok bereganatu dute. Elikadura-burujabetza beraren garapenari buruzko eztabaida askotako gai izan da, eta eztabaida amaitu eta itxi ez den arren, proposamena honako printzipio hauetan oinarritu da: autonomia, jasangarritasuna, berdinkidetasuna, birbanatzea eta justizia. Printzipio horiek eragiten dute modus operandi kolektiboa eta parte-hartze bidezkoa izatea, bestela, proposamena baztergarria eta ez-holistikoa izango litzateke.

Via Campesina nazioarteko mugimendua da, eta haren inguruan mundu osoko 200 milioi inguru nekazari, ekoizle txiki eta ertain, lurrik gabeko herri, indigena, jatorrizko herri, pertsona migratzaile eta nekazaritzako langileak biltzen dira. Eskala txikiko nekazaritza jasangarria defenditzen du justizia soziala eta duintasuna sustatzeko bide gisa. Herriak eta natura suntsitzen ari diren agronegozioen eta multinazionalen aurka dago erabat. Mugimenduaren helburu nagusia elikadura-burujabetza gauzatzea eta prozesu neoliberal suntsitzailea geldiaraztea da. Oinarrian du nekazariak –barnean hartuta arrantzaleak, artzainak eta herri indigenak, munduko biztanleen ia erdia izanik– gai direla euren erkidegoarentzat elikagaiak ekoizteko eta mundua modu osasungarri eta jasangarrian elikatzeko.

ETXALDE nekazaritza iraunkorra elikadura-burujabetzaren aldeko euskal mugimenduak baserritarrak batzen ditu, eta horiek, aldi berean, elikadura-burujabetzaren eta nekazaritza jasangarriaren alde dauden beste eragile sozial eta pertsona batzuk dituzte ondoan. Etxaldek bere dokumentuetan jasotzen duenaren arabera:

«Elikadura-burujabetzak munduko nekazari bakoitza onartzen eta errespetatzen du, eta herritarren aurrean zentraltasuna eskaintzen dio. Elikadura berriro kokatuta, nekazariek euren lanaren zentzua berreskuratzen dute, eta gizarte-legitimitatea lortzen dute. (...) Elikadura jasangarriaren balio nagusia autonomia da: erabakitzeko autonomia, nekazariak ez daitezen agroindustriaren esklabo izan: autonomia tekniko eta ekonomikoa; nekazariek ekoizteko sistemarik eraginkorrenak aukeratzeko, haien lana behar bezala ordaindua izan dadin.»

Elikadura-burujabetzaren proposamenak ekartzen dizkigun hiru gako identifika ditzakegu:

1. Gakoa Elikadura-burujabetza erabakitzeko eskubidean oinarritzen da, herriek euren elikadura-sistema definitzeko eta zer eta nola ekoitzi, zer eta nola banatu, zer eta nola kontsumituko den zehazteko beharrezkotzat jotzen dituzten politikak garatzeko gaitasunean. Beraz, herriak subjektu burujabe definitzen ditu, aukera horiek eraikitzeko ahalmena duten subjektu gisa.

2. Gakoa Elikadura-burujabetza nazioarteko nekazarien mugimendutik datorren ikuspegia da. Ez da garatu ez eremu akademikoan ez erakunde instituzional edo administrazioetan ere. Nekazarien baitan sortu eta eraiki da. Horrek esan nahi du ekintzarako eta jarduteko proposamen politikoa dela; ahalduntze eta ezagupen kritikoa sortzeko prozesuen sorkuntzan oinarritzen dena eta alternatiben eraikuntza kolektibo eta herrikoiaren aldeko apustua egiten duena.

3. Gakoa Elikadura-burujabetzak bi zutabe ditu eredu alternatiboen eraikuntzarako: baserrietako ekonomien eta hari atxikirik dauden ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistemen defentsa; eta agroekologia, alternatiben eraikuntza definitzeko ikuspegi gisa, bai alderdi teknikoari, alderdi sozioekonomikoari zein alderdi soziopolitikoari dagokienez.

Era berean, nabarmendu behar dugu elikadura-burujabetzak emakumeentzat beneta-ko proposamen askatzailea izan behar duela. Landa eta nekazari-eremuak genero-des-berdintasuneko testuinguru gisa identifikatu dira, eta ikusi ahal izan dugunez, mende-kotasun patriarkal handikoak; eta goian aipatutako neurri politikoen ondorioz, gehiago nabarmendu dira. Hori dela eta, begirada zorroztu behar dugu boterea eta erabakitzeko gaitasuna espazio horietan nola banatzen diren ikusteko, eta eremu produktiboan eta erreproduktiboan dauden dikotomiak eta desberdintasunak apurtzeko.

Zergatik eta zertarako elkarlotu elikadura-burujabetza eta hiri-sindikalismoa?

Elikadura-burujabetza herritarren eskubidea da, zeharkakoa, nekazariei ez ezik gizarteko sektore guztiei dagokiena. Elikagaien kalitatea eta sanitatea, lurraldearen kudeaketa egokia, ingurumenarekiko eta biodibertsitatearekiko harreman aproposa eta landa-eremuko bizitzari eta kulturari egin beharreko ekarpena dira, enpleguarekin batera, jasangarria izanez gero nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak ekar ditzakeen baloreak.

Legitimitatea eta sinesgarritasuna izateaz gain nekazari askoko (emakumeak eta gizonak) eta landa-eremu bizi bateko nekazaritza defenditzen duten proposamenak aliantzen bidez soilik eraiki daitezke. Aliantza horien xedea da eraikitzea proposamen sozial eta mobilizazio-dinamika bat gizarteari eta ingurumenari dagokienez jasangarria izango den, elikagai osasungarriak eta kulturalki propioak ekoitziko dituen eta emakumeak zeregin nabarmena izango duten nekazaritza-eredu baten arabera lan egingo duten nekazariek osaturiko nekazaritza defenditzeko.

Gogoeta horretan oinarritua, 9 tailer egin genituen goian aipaturiko sindikatuekin, eta egungo eredu agroindustrialari buruzko gogoeta egin ondoren, honako galdera hau egin genien: Zergatik eta zertarako elkarlotu elikadura-burujabetza eta hiri-sindikalismoa?

Hauek dira ondorio nagusienak:

- Vía Campesina nekazarien nazioarteko aliantza delako.
- Elikadura-burujabetzaren aterpean interesak aurki daitezkeelako eta eraldaketa sozialerako estrategia komunak definitzeko aliantzak eragin daitezkeelako.
- Sistema kapitalistaren ardatz produktibistatik eredu jasangarri eta inguru sozial eta ingurumenarekiko begirunetsua eta biziari eusteko gai den eredurantz aldatzeko.
- Nekazarien agenda politikoa onartzeko eta hari laguntzeko. EBrako proposamen politikoa guztiontzako aukera da; eredu neoliberalari aurre egin eta aukerak proposatzeko gai delako. Beraz, ahalik eta eragile sozial gehienen aldekotasunarekin eraiki behar da.
- Nekazarien ekarpen sozial eta kulturala, eta bereziki, gure baserrietan eta baserrietatik kanpo emakume baserritarrek izan duten zeregin historikoa aintzatesteko.
- Nekazariak ezinbestekoak direlako herriaren eraikuntzan, are gehiago Euskal Herrian, baserriak ekoizpen-unitate ez ezik familia eta kultura unitate ere badirelako. Horren inguruan taxutzen dira aukera askatzaileak eraikitzeko funtsezko elementuak: ondasun komunak, natura, lurralde antolamendua, ezagupenak, bioaniztasuna, elikadura osasungarria, etab.
- Begirada zabaltzeko, eta pertsonen eskubideak lortzeko ate bakar gisa bizitza jartzeko, enpleguaren ordez.
- Elikadura Burujabetza sindikalismoaren jardun politiko osora zabal daitekeelako.
- Elikadura Burujabetza beste eredu sozioekonomiko baterako (kapitalismotik kanpokoa) oinarria delako, eta sindikatuak estrategia komunak definitzeko berezko aliantza dira.
- Jantoki publiko zein pribatuek (ospitaleetan, enpresatan, etab.) eraldaketarako potentzial politiko handia dutelako, elikadura-burujabetzan oinarrituta ulertzen badira.
- Elikadura osasungarria giza eskubidea langile-klase osoaren eskubidea eta lan-osasun onaren oinarri delako.
- Elikadura jasangarria enplegu jasangarriaren sektore sortzaile gisa balioetsi behar delako. Eta gainera, lurralde-kohesioa eta tokiko ekonomiaren garapena ahalbidetzen ditu.
- Elikadura-burujabetza lan-baldintza duinetan oinarritzen delako, bai elikagaien ekoizpenari bai eraldaketari eta merkaturatzeari dagokienez; Ipar zein Hego globalean.

Elikadura-burujabetzaren eraikuntza klaseko sindikalismotik: Erronkak eta proposamenak

Klaseko sindikalismoaren eta nekazarien sindikalismoaren arteko aliantzaren premiaz jabetuta, mugimendu sindikalak, nekazarien mugimenduarekin batera gauzatu nahi dituen erronkak eta proposamenak jaso ditugu:

ERRONKAK:

1. Elikagaien ekoizpenerako toki duina errebindikatu behar dute sindikatuek eta halakorik eman ere bai, eta tokiko eta sasoiko elikagaien kontsumoari egungo sistema aldatzeko giltzarri gisa duen garrantzia eman behar zaio.

2. Lurraldea modu integralean bisualizatzea eta ulertzea, ondasun komuna delako eta ez kontsumo-iturri gisa soilik. Alderdi guztiak har ditzan zaintzea eta planifikatzea, bizitzaren jasangarritasuna lortzeko.

3. Komuna den horretatik begiratzen hastea eta lankidetzaren kultura sustatzea, sistema neoliberalak ezartzen dituen lehiakortasun-balioak arbuiatuta.

4. Sindikatuen baitan gerta litezkeen kontraesanak onartzea eta horien gaineko gogoeta egiten ahalegintzea: Elikadura-burujabetzaren eraikuntza prozesu dinamiko gisa ulertzea.

5. Hiri/nekazaritza eremuetako aliantza sindikalak sustatzea, agenda politikoei laguntzeko eta borroketan bat egiteko.

6. Enpresa-batzordeetan gainerako sindikatuekiko aliantzak indartzea, indarrak batzeko eta Elikadura-burujabetzari dagokionez helburu komunak zehazteko.

7. Feminismo sindikalaren eta nekazaritzako feminismoaren arteko aliantzak eraikitzea, bi eremu horietan, eta burujabetza ardatz, borroka feminista indartzeko.

8. Enplegu duina ez ezik, bizitzaren jasangarritasunarekiko bateragarria ere baden enplegua errebindikatzea.

PROPOSAMENAK ETA EKINTZAK:

1. Ekintza sindikaletik

1.1. Sindikatuetan Elikadura-burujabetzarekin zerikusia duten formazio-saioak egitea. Horrela, sentsibilizazioa bultzatzeaz gain tresna sindikal, kolektibo eta norbanakoenak eraldatzen dira Herrien Elikadura-burujabetza indartzeko. Horren ildotik, nekazarien eta euren ekoizpenen egoera ezagutzea eta eraldaketa politikoa zentzuzko kontsumoaren bidez ahalbidetzea berebizikoak dira.

1.2. Elikadura-burujabetzaren gaiaren inguruan sindikatuetan erreferenteak sortzea, besteak beste:

- Euskal nekazarien mugimenduarekiko solaskidetza sustatzeko, Elikadura-burujabetzaren alde.
- Hainbat eragile sozialekin Elikadura-burujabetzaren aldeko aliantzarako espazioetan parte hartzeko.
- Gai horren inguruan sindikatuko ordezkarien aholkulari jarduteko, lantegi bakoitzean elikadura-burujabetzaren inguruan egon litezkeen proposamenak egokitzeko.
- Nekazarien mugimenduaren agenda politikoaren berri sindikatuan edukitzeko eta hura sozializatzeko.
- Sindikatuaren baitan Elikadura-burujabetzaren aldeko ekintzak, etab. sustatzeko.

1.3. Sindikatuen baitan Elikadura-burujabetza sustatzeko ekintzak zabaltzea jardun politiko guztietan eta bi eremutan: eskualde eta nazio mailan. Esaterako:

- Sindikatuen ekintzetan tokiko elikagai agroekologikoak egotea eta kontsumitzea bultzatzea.
- Enpresetan langileei eskaintzen zaizkien produktuetan (Gabonetako otzarak, etab.) tokiko elikagai agroekologikoak eta haiei buruzko informazio egon daitezen bultzatzea.

1.4. Eskualde bereko baserritarren eta pertsona langabeen artean aliantzak sustatzea, autoenpleguko dinamikak bultzatuko dituzten elkar laguntzak eta interakzioak bilatzeko.

1.5. Elikadura-burujabetza hainbat sektoretan bultzatzeko jardun egokiak ezagutzea eta zabaltzea.

1.6. Elikadura-burujabetza sistema hegemonikoaren aurreko aukerak jasotzen dituzten beste gizarte-eredu jasangarrien baitan kokatzea, ekonomia feminista eta ekonomia sozial eta solidarioa, kasu. Era berean, ereduari eta bestelako aukera askatzaileetatik aurrera egiteko moduei buruzko eztabaidak bultzatzea.

1.7. Formula kolektiboak eraikitzen parte hartzea, baldintza duinetan ekoitziriko kalitateko elikagaietara iristerik izan dezaten pertsona guztiek. Horretarako, beharrezkoa da tokiko elikagai agroekologikoak hirietara eta herritarren sektore guztietara iristea.

1.8. Korporazio handiek eskaintzen dituzten lan-baldintzei, prezioei eta produktuei

eta haien oinarri diren baldintzei (litekeen lan-esplotazioa, lurren metaketa, bioaniztasuna galtzea, elikagai osasungaitzak...) buruzko gogoeta eta eztabaida sustatzea.

1.9. Kontsumoa gizarte-eraldaketarako elementua izatearen inguruan, formazioa-informazioa binomioa indartzeko bitartekoak sustatzea.

2. Enpresa eta lantokietatik:

2.1. Elikadura-burujabetzaren inguruan "puntu ilunak" bilatzea eta salaketa-ekintzak eta aldaketa-proposamenak egitea, esaterako: jantoki publiko zein pribatuetan (enpresetakoak) eskaintzen diren elikagaiak nondik datozen eta zer baldintzatan lantzen diren ikertzea. Horren ildotik, informazio hori kartelen bidez heda daiteke eta enpresetako edo lantokietako jantokietan ipini, zer jaten den ikusarazteko.

2.2. Ondasun komunen, lurra eta ura kasu, pribatizazio-prozesuei aurre egitea ahalbidetuko duten aliantzak eta tokiko dinamikak sortzen parte hartzea, jende berria nekazaritzako jardunari atxikitzeko ezinbesteko elementu baitira.

2.3. Enpresa-batzordetik borroka egitea hitzarmenetan jaso dadin jantokietan ematen diren elikagaiak, ehuneko batean behintzat, tokiko nekazaritza agroekologikokoak izatea (ehuneko txiki batetik hasi, eta igotzen joan). Esaterako, hasieran jar liteke helburu gisa elikagaien % 20 nekazaritza agroekologikokoak izatea. Horrela eskaera eragiten da eta instalazio berriei (gazteak, etab.) segurtasun handiagoarekin ekitea ahalbidetzen da (batez ere zentro publikoetan eragin behar da eskaera, krisialdi ekonomikoan erresistentzia handiagoa dute eta).

2.4. Sindikatuan/enpresan kontsumo-taldeak sustatzea.

2.5. Enpresetan leku bat edukitzea ekonomato gisa erabiltzeko. Enplegatuek eta inguruko pertsona ekoizleek osaturiko kontsumo-taldeek erabil ditzaketen espazioak ere edukitzea. Ekintza horiei esker, enplegatuek kalitate handiko (baina ez horregatik elitista) elikagaietarako irispidea izango dute kontsumo eraldatzailearen bidez.

3. Sektore publiko eta ikastetxetatik:

3.1. Jantoki publikoetan eredu-aldaketa behar dela errebindikatzea, tokian ekoitzitako elikagai osasungarrien alde: kalitateko elikagaiak dituzten jantoki publikoak, lanbaldintza duinak sustatzen dituztenak (ikastegiak, ospitaleak, eguneko zentroak, etab.).

3.2. Hezkuntza sektoreko sindikatuek Ikasleen Gurasoen Elkarteekin (IGE) aliantzak bultzatzea administrazio publikoek konpromisoa har dezaten ikastegietan elikagai osasungarriak ahalbidetzeko eta haien kontsumoa sustatzeko. Era berean, errebindikatzea ikastegi guztiek, besteak beste, eskolako elikadura-sistema aukeratzeko duten eskubidea. Horretarako, beharrezkoa da taldean antolatzea, bai errebindikazioetarako bai

erresistentzietarako.

3.3. Hezkuntza-arloan eskola-curriculumaren eta klaseen (ikasliburuak, etab.) berrikuspen kritikoa egitea, lehenengo sektorea duintzeko eta ez baztertzeko. Horren ildotik, gurasoekin, eragile sozialekin, ikasleekin, eta abarrekin bilerak egin daitezke. Elikadura-burujabetzari, ekonomia sozial eta solidarioari, ekonomia feministari eta abarri buruzko unitate didaktikoak sortu ere bai.

3.4. Ikastegietan ortu agroekologikoak erabiltzea eskatzea, sentsibilizaziorako eta formaziorako tresna diren aldetik, eta ikasleek, irakasleek, gurasoek eta auzokoek ortu horiek erabiltzerik izatea.

Globaliza dezagun borroka, globaliza dezagun itxaropena!

Elikadura Burujabetza
eraiki dezagun

Eredu agroindustriala
Elikadura negozio bezala

NEKAZAL POLITIKAK
- Espekulazioa
- Produktibismoa
- Lanaren esplotazioa
- Ondasun komunen pribatizazioa
- Interes pribatuak

KORPORAZIO HANDIEN NEGOZIOA
- Ekoizpen intentsiboa/Monolaborantza
- Lurrak bereganatzea
- Gastu energetiko handiagoa/Klima aldaketa
- Nekazarien zorpetzea
- Genetikoki eraldatutako organismoak/Hazi patentatuak

Ondorioak Bioaniztasunaren galera

805 milioi lagunek gose kronikoa pairatzen dute

Osasunaren gaineko eraginak Munduan hedaturik dagoen gosea arazo politikoa da

Desberdintasunak IPARRA-HEGOA EMAKUMEAK-GIZONAK **Nekazari txikien ezabapena**

Eredu honek ez du elikadurarako irisgarritasuna ahalbidetzen

Baserritar eredua
Elikadura eskubide bezala

ELIKADURA BURUJABETZA

Herriek, euren nekazaritza eta elikadura sistema propioak erabakitzeko eskubidea da

Eskubidea **ematen die nekazariei elikagai osasuntsuak, kulturaliki egokiak eta modu jasangarrien bidez ekoiztutakoak izateko**

Bermatu egiten du lurrak, lurraldeak, ura, haziak, abereak eta bioaniztasuna erabiltzeko eta kodeatzeko eskubideak elikagaiak ekoizten dituztenen eskura egongo direla, eta ez enpresa-sektorearen eskura

Zergatik eta zertarako elkarlotu **ELIKADURA-BURUJABETZA ETA HIRI-SINDIKALISMOA?**

- Via campesina **nekazarien nazioarteko elkartea da**
- Elikadura burujabetza **beste eredu sozioekonomiko baterako oinarria da**, eta sindikatuak berezko aliatza dira
- Elikadura-burujabetza **eraldaketa sozialaren aldeko** proposamen bat da
- **Nekazarien agenda politikoa** sortzeko eta hari lagundzeko
- Elikadura-burujabetza **lan-baldintza duinetan** oinarritzen da
- **Eredu jasangarri eta begirunetsu** baterantz tiklau
- **Nekazaren ekarpen sozial eta kulturala** aitortu
- Elikadura jasangarria **enplegu jasangarrien sektore sortzailea** gisa babestu behar da
- **Nekazariek ezinbestekoak dira** herriaren erakuntzan
- Jantoki publiko zein pribatuek **eraldaketarako potentzial politiko handia** dute
- Elikadura osasungarria **langile-klase oso eren eskubidea da**
- Nekazaren agenda politikoa babestu ahalko eta **gizarte-subjetu gehienen aldetik**
- Pertsonen **eskubideak lortzeko ate gisa** tiklau jartzeko, enplegurako ordez
- Inguruan **funtsezko elementuak** dauzkaten diru ondasun komunak, natura, lurrade antzinenedus, ezagupenak, bioaniztasuna, osasuna...

Tokiko nekazaritza txikiak mundu mailan kontsumitzen diren elikagaien % 70 ekoizten du

Baserritarrek **mundua elikatu dezakete**

GAUR EGUN MUNDUKO BIZTANLEEN **% 60** DIRA

Eta horietatik % 70 **EMAKUMEAK** dira

emakumeek mundua elikatzen dute

ELIKADURA-BURUJABETZAREN ERAIKUNTZA **KLASEKO SINDIKALISMOTIK**

ERRONKAK

- **Tokiko eta sasoiko elikagaien kontsumoari** egungo sistema aldatzeko giltzarri gisa duen garrantzia eman.
- Lurraldea **modu integralean bisualizatzea** eta ulertzea, herri ondasun bezala.
- **Lankidetzaren kultura** sustatzea hiri/nekazaritza eremuetako aliantza sindikalak sustatzea.
- Sindikatuen baitan gerta litezkeen **kontraesanak onartzea** eta horien gaineko gogoeta egiten ahalegintzea: lan eta garapenerako eredu desberdina posiblea da
- Enpresa-batzordeetan gainerako sindikatuekiko **aliantzak indartzea**, elikadura burujabetzari dagokion esparruetan.
- **Feminismo sindikalaren eta nekazaritzako feminismoaren arteko** aliantzak eraikitzea
- Enplegu duina eta bizitzaren **jasangarritasunarekiko bateragarria** errebindikatzea.

PROPOSAMENAK

- Sindikatuetan elikadura-burujabetzarekin zerikusia duten **formazio-saioak** egitea.
- Elikadura-burujabetzaren gaiaren inguruan **sindikatuetan erreferenteak sortzea**.
- Elikadura-burujabetzaren inguruan **"puntu ilunak"** bilatzea eta salaketa ekintzak eta aldaketa-proposamenak egitea.
- **Tokiko nekazaritza agroekologikoko elikagaien portzentaia** sustatu jantokietan.
- Sindikatuan/enpresan **kontsumo-taldeak sustatzea.**
- Enpresetan leku bat edukitzea **ekonomato** gisa erabiltzeko.
- Herri ondasunen **pribatizazio-prozesuei aurre** egitea.
- **Jantoki publikoetan** eredu-aldaketa.
- **Baserritarron eta pertsona langabeen artean** aliantzak sustatzea.
- Tokiko elikagai agroekologikoak egotea eta kontsumitzea bultzatzea **sindikatuen ekintzetan, gabonetako otzarak,** etab.
- **Ikasleon guraso-elkarteekin aliantzak** bultzatzea tokiko elikagai osasungarriak kontsumoa sustatzeko.
- **Eskola-kurrikulumaren berrikuspen kritikoa** egitea, lehenengo sektorea duintzeko.
- Ikastegietan **ortu agroekologikoak** erabiltzea.
- Elikadura-burujabetza beste **gizarte-eredu jasangarrian** kokatzea.
- Tokiko elikagai agroekologikoak hiritara eta herritarren **sektore guztietara iristea.**
- Korporazio handiek eskaintzen dituzten **lan-baldintzei, prezioei eta produktuei buruzko gogoeta** eta eztabaida sustatzea
- Kontsumoa **gizarte-eraldaketarako elementua** izatearen ideia sustatu.

Antolatzaileak Bizi Lur · Etxalde · Ehne

Laguntzaileak Gipuzkoako Foru Aldundia

Parte-hartzaileak LAB · ELA Euskal Sindikatua · CCOO Euskadiko Langile Komisioak · Esk · Steilas · LKN CGT